

8.- MUNDUKO IKUSKERAK ETA ERLIJOAK

8.1.- DATU BILKETAREN EZAUGARRIAK

8.1.1.- Inkesta

Munduko Ikuskerak eta Erljioetako inkestak bi azpi-proba ditu eta Likert motako 26 itenez osatuta dago. Lehendabizikoak 5 item dauzka eta arloaren **kompetentzia orokorre** dagokie. Beste 21 itemak berriz, arloaren **kompetentzia espezifikoei** dagokie.

Aurkeztutako kompetentzia bakoitzeko itemak 5 erantzun aukera ditu. Erantzuteko, arloan adituak direnei kompetentzia bakoitzaren balorazioa egitea eskatu zaie. Balorazio hori, 1etik 5era doan eskalan egin behar izan dute, aukera bakoitzaren esanahia ondokoa izanik:

- 1 = Hutsala
- 2 = Garrantzi gutxikoa
- 3 = Garrantzi ertaina
- 4 = Garrantzi handikoa
- 5 = Behar beharrezkoa

Inkesten fidagarritasuna Cronbachen Barneko Sendotasun Alfa Koefizientearen bitartez kalkulatu da, ondoko taulan azaltzen diren balioak lortuz. Ikus daitekeenez balio horiek guztiz egokiak dira.

	Cronbachen Alfa	Ítem kopurua
Kompetentzia orokorren azpi-proba	0,764	5
Kompetentzia espezifikoen azpi-proba	0,9898	21

Kompetentzia orokor eta espezifiko bakoitzaren balorazio kuantitatiboaz gain, balorazio kualitatiboa egitea ere eskatu zitzaizen adituei, ondoko koadroan agertzen den gidioa jarraituz:

1.-Gizarte Zientziak arloko kompetentzia espezifikoak hobetzeko proposamen zehatzak
(Aipatzen ez diren eta garrantzizkoak irizten diren kompetentzia espezifikoak, hobetzeko beharra dutela irizten diren atalak...)

2.-Iruzkinak
(Emandako balorazioari buruzko arrazoen azalpena, proposamenak...)

3.-Inkesta erantzuteko erabilitako bideak
(Parte hartu duten pertsonen kopurua, horien ezaugarriak, erantzunak adosteko erabili den bidea...)

8.1.2.- Partehartzaileak

Jarraian, laginaren aldagaien ezaugarriak azaltzen ditugu, ondoren, aldagai independente gisa, azpitalde bakoitzaren konparaketa egiteko erabiliko ditugunak.

Ikastetxe mota

		Maiztasuna	Ehunekoa	Baliozko ehunekoa	Ehuneko metatua
Baliozkoak	1 ikastola	41	31,3	31,3	31,3
	3 kristau eskola	90	68,7	68,7	100,0
	Denera	131	100,0	100,0	

Lurraldea

		Maiztasuna	Ehunekoa	Baliozko ehunekoa	Ehuneko metatua
Baliozkoak	1 Araba	10	6,6	6,6	6,6
	20 Gipuzkoa	57	37,7	37,7	44,3
	31 Nafarroa	5	3,3	3,3	47,6
	48 Bizkaia	59	39,1	39,1	86,7
	Iparralde	20	13,3	13,3	100,0
	Denera	151	100,0	100,0	

Hizkuntz eredua

		Maiztasuna	Ehunekoa	Baliozko ehunekoa	Ehuneko metatua
Baliozkoak	1,00 A	25	19,1	25,8	25,8
	2,00 B	20	15,3	20,6	46,4
	3,00 D	52	39,7	53,6	100,0
	Denera	97	74,0	100,0	
Galduak	Sistema	34	26,0		
	Denera	131	100,0		

8.2.- ARLOKO KOMPETENTZIA OROKORRAK

Item 1.- Norberaren askatasuna eta autonomia balioestea, eta, norberaren ezaugarri eta mugak ezagututa, arduraz kokatzea berarentzako eta besteentzako eskubideak eta betebeharrak dituen subjektu moduan, bizikidetzeta, justizia eta elkartasunaren arau etikoak bereganatuz, bizitzaren eta egungo arazoan aurrean jarrera eta erantzun positiboak izateko.

Item 2.- Euskal gizartearen kezka nagusiekin bat etortzea, gertaerak eta egoerak, ideologiak eta mugimenduak aztertuz eta balioetsiz, giza duintasunaren defentsan eta herrien eta norbanakoen eta taldearen giza eskubideen garapenean interesa agertuz nortasun bateratu bat eraikitzeke; identitate komun horrek harmonian egon beharko du beste herrieekin eta kulturekin, kultur arteko aberastasuna sortzeko.


Item 3.- Pertsonen eta horien harreman esparruari buruzko zentzuzko galderak egitea (sorrera eta patua, zorientasuna, sufrimendua, gaizkia, heriotza, gizartea, pertsona, injustizia, kosmosa, natur ingurunea, beste mundua...), humanismoek, kulturek eta erlijioek emandako erantzunak arduraz identifikatuz eta balioetsiz, horiei buruzko nor bere ideiak propioak eta portaera pertsonal kritikoa, irekia eta elkarriketaren aldekoa izateko, eta bizitzari edo jarrera etikoari buruzko arazo txikiak konpontzeko.

Item 4.- Erlijioa kultur fenomeno delat bereiztea eta balioestea, erlijio nagusien historiaren, sortzaileen, egituren, dotrinaren, liburu sakratuen, gurtzen eta errituen, arau moralen eta kultur adierazpenen azterketa konparatiboaren bidez, baita sistema etikoen, pseudoerlijioen eta mugimendu berrien azterketa konparatiboaren bidez ere, berdintasunarekiko jarrera kritikoa izanez eta, aldi berean, tolerantzia aktiboa eta errespetua agertuz, eta ikuspegi bakoitzaren berezitasunak harmoniaz uztartuz.

Item 5.- Euskal Herriko erlijiotasunaren mugarrak eta adierazpenak identifikatzea, eta arte eta kultur adierazpenak interpretatzea, horiek elementu estetikoak eta erlijiosoak aplikatuz, adierazpen horietaz gozatzeko, errespetatzeko eta egungo belaunaldiak horiek zaintzeko duen ardura bereganatzeko, gure kultur ondarearen zati baitira.


8.2.1.- Konpetentzia orokorrak eta ikastetxe mota

ikastetxe mota		ko1	ko2	ko3	ko4	ko5
1 ikastola	Batazb.	4,88	4,47	4,55	4,17	4,08
	N	40	40	40	41	40
	Desb. tip.	,335	,784	,677	,803	,859
3 kristau eskola	Batazb.	4,72	4,19	4,61	4,42	3,79
	N	90	89	90	90	90
	Desb. tip.	,475	,737	,555	,653	,828
Denera	Batazb.	4,77	4,28	4,59	4,34	3,88
	N	130	129	130	131	130
	Desb. tip.	,441	,760	,593	,710	,845




8.2.2.- Konpetentzia orokorrak eta lurraldea

lurraldea		ko1	ko2	ko3	ko4	ko5
1 Araba	Batazb.	4,70	4,20	4,30	4,20	4,00
	N	10	10	10	10	10
	Desb. tip.	,483	,789	,675	,919	,667
20 Gipuzkoa	Batazb.	4,79	4,30	4,65	4,37	3,88
	N	57	57	57	57	57
	Desb. tip.	,411	,706	,582	,723	,946
31 Nafarroa	Batazb.	4,75	5,00	4,50	4,00	4,25
	N	4	4	4	5	4
	Desb. tip.	,500	,000	1,000	1,000	,500
48 Bizkaia	Batazb.	4,76	4,22	4,59	4,37	3,83
	N	59	58	59	59	59
	Desb. tip.	,468	,817	,561	,641	,791
Denera	Batazb.	4,77	4,28	4,59	4,34	3,88
	N	130	129	130	131	130
	Desb. tip.	,441	,760	,593	,710	,845



8.2.3.- Konpetentzia orokorrak eta hizkuntz eredia

hizkuntz eredia		ko1	ko2	ko3	ko4	ko5
1,00 A	Batazb.	4,60	4,16	4,40	4,32	4,04
	N	25	25	25	25	25
	Desb. tip.	,577	,800	,645	,690	,676
2,00 B	Batazb.	4,85	4,20	4,80	4,55	3,75
	N	20	20	20	20	20
	Desb. tip.	,366	,768	,410	,605	,910
3,00 D	Batazb.	4,80	4,43	4,59	4,21	4,00
	N	51	51	51	52	51
	Desb. tip.	,401	,755	,638	,800	,894
Denera	Batazb.	4,76	4,31	4,58	4,31	3,96
	N	96	96	96	97	96
	Desb. tip.	,453	,772	,610	,741	,845



8.3.- ARLOKO KONPETENTZIA ESPEZIFIKOAK

Item 1.- Norberaren eta gainerakoen gaitasunak onartzea eta balioestea -bereziki askatasuna-, bizikidetzaren ohiko arauak onartuz eta gatazkak konpontzen aktiboki parte hartuz.

Item 2.- Kritikoki aztertzea gizarte bizitzako zenbait gertaera, jarrera eta teoria, bizikidetzaren etikarekin lotutakoak, jarrera eta erantzun arduraz hartuz.

Item 3.- Informatika eta komunikazio bideak eta aurrerapen teknologikoak arduraz erabiltzea, norbera eta taldea hobetzeko, bide horien kultur eta gizarte balioa aintzat hartuz.

Item 4.- Euskal gizartean gehien estimatzen diren balio komunekin identifikatzea: euskara, berezko kultura, elkartasun proiektuak, etab., eta arazoekiko eta kezkekiko jarrera irekia, interesa eta entzuteko jarrera izatea.

Item 5.- Eskolan, familian eta kalean, bakearen eta giza eskubideen aldeko herri ekimenei laguntzea, harmonian bizitzea gutxiengoekin eta etorkinekin, eta beste kulturen aberastasuna barneratzea.

Item 6.- Euskal Herriko egungo gertaerei, egoerei edo arazoei buruzko informazioa zuzen biltzea eta antolatzea, behaketa teknikak, galdera sortak, elkarrizketan eta prentsak oharrak erabiliz.

Item 7.- Naturaltasunez eta zehaztasunez planteatzea eta aurkeztea gizakiaren izate sakonari buruzko galderak eta zalantzak (sorrera, beste mundua, zorientasuna, mina, ezbeharrak, heriotza), erantzutea eta zentzuz eta duintasunez bizitzea.

Item 8.- Filosofia humanistek eta zenbait kulturak eta erlijioek gizonari-emakumeari eta bizitzari buruz emandako erantzunak ezagutzea eta kritikoki balioestea, eta aukera eta balio desberdinak errespetatzea.

Item 9.- Gertaera erlijiosoaren (erlijioa) oinarritzko elementuak iraganeko eta etorkizuneko fenomeno unibertsaltzat identifikatzea, eta beste erlijioetako pertsonak eta taldeak onartzea.

Item 10.- Historiako erlijio nagusiak bereiztea eta kokatzea, horien antzekotasunak (ezaugarri komunak) eta desberdintasunak (pertsonak, dotrinak, liburu sakratuak, ikurrak...) alderatuz.

Item 11.- Eduki etiko edo erlijiosoko testu errazak interpretatzea, arauak edo giltzak errespetatuz eta mezua bere testuinguruan kokatuz.

Item 12.- Oinarritzko ikerketa lanak diseinatzea eta egitea, bakarka nahiz taldean, ikuspegiak eta ideiak harmonizatuz. Lanak gai hauei buruzkoak izango dira: interes soziala eta kulturala, etika ekologikoa, arazo erlijiosoak, giza balioak, familia, hirugarren mundua, etab.

Item 13.- Euskal gizartean eta munduan arazoak konpontzeko eta elkartasun proiektuak eraikitzeko eredu eta erreferentzia moralak eta etiko-erlijiosoak aplikatzea.

Item 14.- Euskal Herriko kristautasunaren eta Elizaren gertaera garrantzitsuenak ezagutzea eta kronologikoki antolatzea, eta euskal gizartearen eraikuntzari egindako ekarpena balioestea.

Item 15.- Euskal Herriko historiaurreko eta historiako kultura, erlijio eta mitologia elementuak identifikatzea eta elkarrekin lotzea, eta horien esanahia eta egun duten presentzia balioestea.

Item 16.- Gure kultur ondare erlijiosoaren adierazpenak estetikoki eta espiritualki behatzea (artelanak, musika sakratua, literatur lanak, etab.), eta horien mezuaz eta edertasunaz gozatzea.

Item 17.- Erlijio arloarekin lotura duten festen, ohituren, eta lekuen esanahia aurkitzea eta ulertzea, eta kultur arteko aberastasun moduan balioestea.

Item 18.- Gizon eta emakumeen arteko eskubide eta tratu berdintasuna onartzea eskolan, familian eta gizartean, eta gizarte elkarrizketa erabiltzea desberdintasunak eta bazterketak gainditzeko bitartekotzat.


Item 19.- Ongizatearen gizartearekin konpromisoak hartzea, keinuen, ekintzen, elkartasun proiektu etikoan, justizia proiektuen eta Euskal Herriko kultura eta natura ondarea zaintzeko proiektuen bidez, belaunaldiaren eta pertsonaren ardura baita.

Item 20.- Euskal Herrian errotutako herri mugimenduen balioa eta zentzua ezagutzea (bakegintza, GKEak, boluntarioak, feminismoa, hirugarren munduari laguntza, gazte mugimenduak, etab.), eta horiek egindako lana estimatzea eta hobetzeko ekimenetan parte hartzea.

Item 21.- Mundu ikuskera eta Erlijioak arloaren balorazioa oro har.


8.3.1.- Konpetentzia espezifikoak eta ikastetxe mota

Ikastetxe-mota		kes 1	kes 2	kes 3	kes 4	kes 5	kes 6	kes 7	kes 8	kes 9	kes 10	kes 11	kes 12	kes 13	kes 14	kes 15	kes 16	kes 17	kes 18	kes 19	kes 20	kes 21	
1 ikastola	Bataz.	4,73	4,53	3,83	4,51	4,56	4,37	4,33	4,08	4,29	4,20	3,78	4,27	4,13	3,58	3,90	3,56	3,80	4,88	4,42	4,24	4,18	
	N	40	38	40	39	39	40	39	39	41	41	41	40	39	40	40	41	41	40	38	38	38	
	Desb. tip.	,554	,603	,844	,683	,552	,667	,737	,900	,814	,679	,962	,933	1,031	,874	,955	1,001	,813	,335	,858	,751	,652	
3 kristau eskola	Bataz.	4,57	4,28	3,64	3,93	4,50	3,56	4,50	3,93	4,46	4,15	3,91	3,98	4,21	3,73	3,42	3,59	3,77	4,74	4,20	4,08	4,14	
	N	90	90	89	88	90	90	90	89	90	89	90	90	90	90	90	90	90	90	90	89	89	86
	Desb. tip.	,619	,654	,908	,828	,604	,766	,658	,823	,639	,747	,759	,779	,711	,776	,834	,820	,780	,531	,677	,678	,706	
Denera	Bataz.	4,62	4,35	3,70	4,11	4,52	3,81	4,45	3,98	4,40	4,16	3,87	4,07	4,19	3,68	3,57	3,58	3,78	4,78	4,27	4,13	4,15	
	N	130	128	129	127	129	130	129	128	131	130	131	130	129	130	130	131	131	130	127	127	124	
	Desb. tip.	,602	,647	,889	,828	,588	,827	,684	,846	,699	,724	,826	,837	,817	,807	,897	,877	,787	,482	,739	,701	,687	




8.3.2.- Konpetentzia espezifikoak eta lurraldea

lurraldea		kes 1	kes 2	kes 3	kes 4	kes 5	kes 6	kes 7	kes 8	kes 9	kes 10	kes 11	kes 12	kes 13	kes 14	kes 15	kes 16	kes 17	kes 18	kes 19	kes 20	kes 21	
1 Araba	Bataz.	4,70	4,50	3,80	4,11	4,80	3,80	4,40	3,70	4,00	4,20	4,10	4,40	4,30	3,70	3,60	3,70	4,20	4,50	4,30	4,00	3,89	
	N	10	10	10	9	10	10	10	10	10	10	10	10	10	10	10	10	10	10	10	10	10	9
	Desb. tip.	,483	,707	,789	,601	,422	,919	,699	,823	,816	,789	,738	,516	,823	,949	1,174	,675	,789	,972	,483	,667	,601	
20 Gipuzkoa	Bataz.	4,65	4,41	3,70	4,25	4,48	3,86	4,50	3,93	4,46	4,20	3,81	4,04	4,16	3,61	3,62	3,54	3,82	4,82	4,29	4,13	4,24	
	N	57	56	57	57	56	57	56	56	57	56	57	57	56	57	56	57	57	57	55	54	54	
	Desb. tip.	,582	,596	,906	,714	,572	,875	,739	,931	,734	,749	,833	,906	,826	,901	1,001	,927	,805	,384	,685	,702	,642	
31 Nafarroa	Bataz.	4,75	4,25	3,75	4,50	4,75	4,25	4,50	4,00	4,40	4,40	3,60	4,50	4,00	4,00	3,40	3,80	3,80	5,00	4,75	4,40	4,50	
	N	4	4	4	4	4	4	4	4	5	5	5	4	4	4	5	5	5	4	4	5	4	
	Desb. tip.	,500	,957	,500	,577	,500	,957	,577	,816	,548	,548	,548	1,000	,816	,000	1,342	1,643	,447	,000	,500	,894	,577	
48 Bizkaia	Bataz.	4,56	4,28	3,67	3,95	4,49	3,73	4,41	4,07	4,42	4,10	3,92	4,02	4,20	3,73	3,53	3,58	3,66	4,78	4,21	4,12	4,09	
	N	59	58	58	57	59	59	59	58	59	59	59	59	59	59	59	59	59	59	58	58	57	
	Desb. tip.	,650	,670	,925	,953	,626	,762	,646	,769	,649	,712	,857	,799	,826	,715	,704	,792	,779	,457	,833	,703	,739	
Denera	Bataz.	4,62	4,35	3,70	4,11	4,52	3,81	4,45	3,98	4,40	4,16	3,87	4,07	4,19	3,68	3,57	3,58	3,78	4,78	4,27	4,13	4,15	
	N	130	128	129	127	129	130	129	128	131	130	131	130	129	130	130	131	131	130	127	127	124	
	Desb. tip.	,602	,647	,889	,828	,588	,827	,684	,846	,699	,724	,826	,837	,817	,807	,897	,877	,787	,482	,739	,701	,687	



8.3.3.-Kompetentzia espezifikoak eta hizkuntz eredia

eredua		kes 1	kes 2	kes 3	kes 4	kes 5	kes 6	kes 7	kes 8	kes 9	kes 10	kes 11	kes 12	kes 13	kes 14	kes 15	kes 16	kes 17	kes 18	kes 19	kes 20	kes 21	
1 A	Bataz.	4,48	4,12	3,92	3,96	4,56	3,64	4,40	3,92	4,32	4,28	4,16	4,08	4,16	3,80	3,68	3,96	4,04	4,60	4,08	3,88	4,13	
	N	25	25	25	24	25	25	25	25	25	25	25	25	25	25	25	25	25	25	25	25	25	24
	Desb. tip.	,653	,726	,702	,690	,651	,757	,577	,812	,627	,678	,624	,640	,746	,816	,945	,735	,790	,707	,640	,666	,612	
2 B	Bataz.	4,85	4,45	3,80	4,10	4,50	3,55	4,65	3,90	4,65	4,21	3,70	3,95	4,30	3,70	3,30	3,50	3,80	4,85	4,21	4,00	4,11	
	N	20	20	20	20	20	20	20	20	20	19	20	20	20	20	20	20	20	20	19	19	19	
	Desb. tip.	,366	,510	1,005	,641	,607	,686	,587	,912	,489	,787	,801	,826	,571	,801	,865	,827	,834	,366	,631	,667	,737	
3 D	Bataz.	4,63	4,42	3,73	4,37	4,56	4,14	4,40	4,00	4,25	4,13	3,79	4,10	4,02	3,76	3,76	3,63	3,79	4,86	4,44	4,31	4,22	
	N	51	50	51	51	50	51	50	50	52	52	52	51	50	51	51	52	52	51	50	51	49	
	Desb. tip.	,631	,609	,827	,799	,541	,775	,728	,904	,789	,768	,915	,900	1,000	,907	,929	,950	,776	,348	,675	,648	,621	
Denera	Bataz.	4,64	4,35	3,79	4,21	4,55	3,89	4,45	3,96	4,35	4,19	3,87	4,06	4,12	3,76	3,65	3,69	3,86	4,79	4,30	4,14	4,17	
	N	96	95	96	95	95	96	95	95	95	96	97	96	96	95	96	96	97	97	96	94	95	92
	Desb. tip.	,600	,632	,832	,756	,579	,793	,665	,874	,708	,744	,837	,818	,861	,855	,929	,882	,790	,479	,669	,678	,640	



8.4.- EMAITZEN LABURPENA ETA HOBEKUNTZA PROPOSAMENAK

8.4.1.- Emaizten laburpena

Konpetentzia orokorrak

Munduko Ikuskerak eta Erlijioak arloan planteatutako 5 konpetentzia orokorretatik, denak oso ondo onartuak izan dira kontsultatutako adituengandik, 4 baino altuagoak diren balioak lortuz (balioak 1etik 5era izan daitezkeela kontutan hartu behar da). Salbuespena 5. konpetentzia orokorra da. Kasu honetan balorazioen batezbestekoa 3,88 da. Beraz, konpetentzia hau berrikusi beharko litzateke, alegia, barnean sartzeko, aldatzeko edo alde batera uzteko posibilitateak aztertu beharko lirateke.

Aztertutako hiru aldagaien arabera (sarea, lurraldea eta hizkuntza eredu), konpetentzia orokorren balorazioetan antzeman ditugun diferentzietan dagokienez zera aipa daiteke:

- Lurralde desberdinetako adituen artean ez dago diferentzia estatistikorik konpetentzia orokorre emandako balorazioetan.
- Era berean, hizkuntza eredu desberdinetako ikastetxeetako adituek egindako balorazioetan ere, ez da diferentzia adierazgarririk antzeman konpetentzia orokorretan.
- Gauza bera gertatu da, ikastoletako eta kristau eskoletako adituen balorazioak alderatu direnean. Hau da, ez da diferentzia adierazgarririk antzeman aztertutako konpetentzia orokorretan.

Arloko konpetentzia espezifikoak

Munduko Ikuskerak eta Erlijioak arloko 21 konpetentzia espezifikoei buruz adituek egindako azterketaren emaitzek, orokorrean ondo onartuak izan direla erakusten dute, kasu gehienetan batezbesteko balioak 4 baino altuagoak baitira. Dena den, berrikuspenean behar duten 7 konpetentzia badaude (3., 6., 11., 14., 15., 16., eta 17. konpetentziak). Kasu hauetan lortutako batezbesteko balioak 4 baino baxuagoak izan dira eta honek adituen aldetik onarpen orokorra ez du bermatzen.

Aztertutako hiru aldagaien arabera (sarea, lurraldea eta hizkuntza eredu), konpetentzia espezifikoaren balorazioetan antzeman ditugun diferentzietan dagokienez zera aipa daiteke:

- Lurralde desberdinetako adituen artean ez dago diferentzia estatistikorik konpetentzia espezifikoei emandako balorazioetan.
- Era berean, hizkuntza eredu desberdinetako ikastetxeetako adituek egindako balorazioetan ere, ez da diferentzia adierazgarririk antzeman konpetentzia espezifikoetan.
- Aurreko joera jarraituz, ikastoletako eta kristau eskoletako adituen balorazioak antzekoak dera kasu gehienetan ez baitira diferentzia adierazgarriak eman. Dena den 4., 6. eta 15. konpetentzia espezifikoak berbegiratu egin beharko lirateke baloratuagoak gertatu baitira ikastoletako adituengatik kristau eskoletako ditugatik baino.

8.4.2.- Hobekuntza proposamenak

Orokorrean arloa oso ondo onartua izan da (29-1, 115-3), baina zeresan ugari eman du eta iritzi eta ekarpen ugari jaso ditugu bai ikastetxeetako eragile zeina dituen aldetik; besteak beste, gure ustez, alde batera utzita berrikuntza metodologikoak, arloen proposamenetan egiten den aldaketarik handiena, honako hau txertatzea delako (41-1). Hori dela eta, zenbaitzuk, arloari eutsi baina izenburua egokitzea proposatzen dute, bertatik "erlijioak" hitza kenduaz (2-1, 7-1, 27-1, 31-1, 59-1, 205-2, 205, 218, 219, 231), edo "filosofia" izenburupean azalduaz (50-1, 217, 218, 219, 231, 228). Nolanahi ere, garrantzitsutzat jotzen da arlo hau, batez ere egungo gizarte egoera dela eta. Nolanahi ere, gehiago zehaztu beharko litzatekeenaren iritzia agertzen da bai eta kristau erlijioa ez hainbeste azpimarratzea (34-1, 59-1, 157-3, 217, 219, 231), honako hau, ikastetxetik kanpo gelditu beharko lukeelako (205-2, 217, 231), ideologia mailakoa baita. Hala ere alderantzizko iritzi batzuk ere agertzen dira, kristau erlijioaren eduki gehiago txertatzearen aldekoak alegia (2-1, 85-3, 79-3, 93-3, 100-3, 107-3, 112-3, 115-3, 127-3, 150-3, 153-3).

Bestalde, ulergarritasunean hainbat zalantza agertzen da, eta gehiago zehazteko (30-1, 104-3, 150-3, 217, 231) proposamena egiten da bai eta gainerako arloen arteko koordinazio eta uztarketa lantzea ere (228).

Gure ustez, iritzietan agertzen den bezala, arlo honek garrantzia handia du pertsonaren hakuntza eta heldutasuna lantzearen ikuspegitik, baina berrikusi egin beharko litzateke eta agian izenburua aldatze edo egokitzeari ekin.

Hobekuntza proposamenetan, honako gai hauek ere txertatzea iradoki dituzte galdeketa erantzun dituztenak eta adituak:

- Ekialdeko pentsaeren aniztasuna landu, unibertsaltasuna, beste erlijio eta pentsamoldeak, Europa zentrismoa gaitzeko. (28-1, 92-3, 158-3, 159-3, 217)
- Dimentsio kontenplatiboa landu, espiritualitatea (64-3, 75-3, 98-3, 125-3, 137-3)
- Fundamentalismoaren jatorria aztertu (7-1), kritikotasuna landu (59-1, 91-3, 231)

- Askapen teologia landu (7-1, 217)
- Erlijioarekin zerikusia duten literatur adierazpenak txertatu (Lizardi, Orixe, Gandiaga...) (199-3)
- Askatasuna, autonomia, eskubideak, betebeharrak, erantzunkizunak landu (206-3)
- Hezikidetasuna landu (59-1)

Baliabideak direla eta, bereziki azpimarratzen da kalitatezko ikasmaterialen premia (140-3, 158-3, 199-3), beharrezko denbora-tartea (157-3), irakasleen prestakuntza beharra (199-3) bai eta edonor izan ahal izatea arlo honetako irakasle (112-3).